

**INGURUMEN INPAKTUAREN
BEHIN BEHINEKO
TXOSTENARI BURUZKO
BERARIAZKO ADIERAZPENA**

AURKIBIDEA

- 1. AURREKARIAK**
- 2. PLAN OROKORRAREN HELBURUAK**
- 3. INGURUMEN INPAKTUAREN BEHIN BETIKO TXOSTENAREN EBAZPENA**
- 4. BABESTEKO, ZUZENTZEKO, OREKATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO NEURRIEN AZTERKETA**
- 5. ONDORIOA**

1. AURREKARIAK

Agiri hau Arrasateko plangintza orokorra (HAPO) berrikusteko agiria behin betiko onartzeko tramitazio-prozesuaren baitan idatzi da, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ezarritakoa betetzeko.

2. PLAN OROKORRAREN HELBURUAK

Hona HAPOaren helburu estrategikoak:

1. Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren hedapena murriztea, eta, hiri urbanizagarria desklasifikatuz ere, urbanizaezin bihurtzea. Hiri-lurzoruan: Hirigunean dauden industriagune zaharkituak birgaitzeko eragiketak sustatzea, bertan etxebizitzak, ekipamenduak edo jarduera ekonomiko berriak kokatzeko. Etxebizitza berrien eskaintza murriztu eta benetako beharrianetara egokitzea; hala, Gesalibar-Garagartzan etxebizitzetarako aurreikusitako eremu ugari desklasifikatu egingo dira.
 - Etxebizitza-erakinen tipologia indarreko legeriara egokitzea. Ildo horretan, trinkotasun txikiko bizitegi-eremu berriak desagertu egingo dira.
3. Lurzoru urbanizaezinen zonakatzeko berria proposatzea, natura-inguruneak babeste aldera; besteak beste, Udalatxeko eremu babestua, bai eta babes bereziko beste ingurune batzuk ere (Udala azpiko artadia, Quercus coccifera espezie babestua dagoen ingurunea, Santaagedatx, Murugain, Murugaineko aztarnategia, eta Epelen, Kurtzetxikin eta Etxezarretan landaredia ondo mantendu ingurunea). Era berean, lurzoru horietan nekazaritzako eta basozaintzako jarduera bideragarriak egiteko eremu egokiak gordetzea, hala kalitatean nola kantitatean, baina uneoro ingurumenaren zaintza bermatzeko funtsezko elementuak errespetatuta.
4. Jardunean dauden nahiz balio-bizitza amaituta duten harrobiei buruzko txostenaren emaitzak txertatzea. Horren inguruan, harrobietako batzuk hiri-lurzorutik hurbil daudenez, posible izango da jarduketako batzuk era asimetrikoan burutzea, harrobiek lurrazalean egindako kalteak leheneratze aldera.
5. Bidegorrien sarea zabaltzea. Gaur egun dauden hiru bidegorri nagusiak (Deba bailarako bidegorria, oinezkoentzako Gernikako zumardia eta Gesalibar arteko luzapena, eta Etxaluze-Garagartzako bidegorria) finkatzeaz gain, barneko ardatz berriak ere aurreikusita daude: Etxaluze-Musakola eta Arimazubi-Maala bidegorriak.

6. Udalerriko kultura-, arkeologia- eta natura-ondarea babestea: horretarako, dagoeneko babes-araudia duten ondare sailkatu eta zerrendatuei ez ezik, beste ondare askori ere eskaintzen die babes plan nagusiak.

3. INGURUMEN INPAKTUAREN BEHIN BETIKO TXOSTENAREN EBAZPENA

Ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenaren arabera, HAPOan ezarritako helburuak egokiak dira eta idazketan egoki txertatu dira, gainera, tramitazio-prozesu osoan zehar.

Horregatik, behin betiko txostenak ez du ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa zabaltzea eskatzen duen proposamen berririk egin.

Nolanahi ere, behin betiko txostenak adierazi du babesteko, zuzentzeko, orekatzeko eta jarraipena egiteko neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatu beharko direla, ingurumen-inpaktuaren azterketan aurreikusitakoarekin bat eta agiri honetako 4. puntuari aztertuko diren hainbat neurriekin bat.

4. BABESTEKO, ZUZENTZEKO, OREKATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO NEURRIEN AZTERKETA

BABESTEKO, ZUZENTZEKO ETA OREKATZEKO NEURRIAK

Ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenak zehazten duenez, paisaiaren gaineko inpaktua prebenitzeko, beraren eskumeneko obra- eta jarduera-proiektuetan paisaian txertatzeari buruzko azterketak egin beharko dira dokumentazio osagarri gisa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7.3. artikulua dioenarekin bat.

Alderdi hori ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduran txertatu beharko dute plan partzial edo berezien bidez garatutako jarduketara integratuek.

Etorkizunean garatzeko antolamendu-esparruek, hirigintza-kalifikazioa aldatuko dutenek barne, soinu-inpaktuari buruzko azterketa txertatu beharko dute hirigintza- eta ingurumen-tramitazioa burutzeko, haren baitan sartuta zonaldeko soinu-inpaktu globala aurreikusten lagunduko duten hots-mapak eta soinu-ebaluazioak. EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eskatzen den dokumentazioa erantsi beharko dute, gutxienez.

Alderdi hori ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduran txertatu beharko dute plan partzial edo berezien bidez garatutako jarduketa integratuek.

INGURUMEN JARRAIPENA EGITEKO PLANA

Behin betiko txostenak ontzat jo ditu HAPOaren agirian aurkeztutako erreferentziako adierazleak, eta plan nagusiaren indarraldian ingurumen-zaintzarako plana abian jarri eta jorra dezala eskatu dio Udalari.

UHOLDE ARRISKUA DUTEN EREMUETAKO ERABILERAK ZEHAZTEA

Behin betiko txostenaren arabera, ezin da erabileraren bat ezartzera bideratutako hirigintza-jarduketarik burutu uholde-arriskua duten eremuetan, baldin eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren I. eranskineko 40., 41. eta 42. artikuluek zehaztutakoaren aurka badoaz.

Gai horren inguruan esan behar da HAPOaren agiria indarreko araudia errespetatuz tramitatu dela eta, beraz, administrazio publiko interesdun guztiei kontsultatzeko tramitea ere bete dela. Kontsultatutako organismoen artean dago, besteak beste, URA Uraren Agentzia.

Gauzak horrela, agentzia horrek uholde-arriskua duten eremuetan hirigintza-jarduketak egiteko agintzen dituen eskakizun eta baldintza guztiak betetzen ditu HAPOaren agiriak.

Era berean, ibaiaren eraginpean dauden eremuetan proposatzen diren jarduketa integratu berriak egiteko, aurretiaz URArekin kontsultatu beharko dira eta, ondorioz, horren inguruko araudia errespetatu egingo dela bermatzen da.

PLANAREN ONDORIOZKO PLANAK ETA PROIEKTUAK EBALUATZEKO GIDALERRO NAGUSIAK

Behin betiko txostenaren gomendioz, plan partzial edo berezien bidez jorratuko diren jarduketak integratuek gidalerrotzat hartu beharko dituzte Ingurumen Sailburuordetzak 2011ko irailaren 13ko ebazpenaren bidez egindako Erreferentzia Agiriko ingurumen-irizpideak garatzen dituzten iraunkortasunari buruzko tratatu eta azterketetan jasotako ildoak.

Zehazki, honako ingurumen-irizpide hauek hartu beharko dituzte aintzat:

1.- Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea, eta, horretarako:

- 1.1.- Beharrianak aztertzea, aurreikusitako garapenak ez gaindimentsionatzeko.
- 1.2.- Lurzoru antropizatuen berrerabilpena sustatzea eta lehenestea, lurzoru naturalak edo urbanizatugabeak artifizialdu aurretik.
- 1.3.- Lurzoruak hirigintza-erabileretarako gutxiago zigilatzea eta, horren ordez, egungo gainazal bigunen eta landarediaren babesa bultzatzea.
- 1.4.- Udalerriko jatorrizko biziguneetan eraiki eta urbanizatutako ondarea birgaitzea eta etxebizitza hutsak erabiltzea.
- 1.5.- Kutsatutako lurzoruak leheneratu eta balioztatzeke irtenbideak bultzatzea eta sustatzea.

2.- Hiria zabaldu eta sakabanatu ez dadin lan egitea, eta, horretarako:

- 2.1.- Hiri trinkoaren eredia indartzea. Lurzoruaren erabilerak modu mistoan eta malguan planifikatzea.
- 2.2.- Eraikuntza-trinkotasun handi samarrak sortzea.
- 2.3. Lurzoruaren erabilera eta mugikortasun iraunkorra era integratuan planifikatzea, garraio publikoaren eta bizikletentzako erraien garapen berriak zuzkituz. Joan-etorriak murriztea, eta garraiobide publikoak eta motorgabeak sustatzea.
- 2.4.- Ahalik eta gehien murriztea familia bakarreko etxebizitzak eta etxebizitza atxikiak.
- 2.5.- Herritarren beharrianetara egokitzea ekipamenduen eta espazio libreen azalerak.
- 2.6.- Erabilera pribatuko espazio libreak saihestea.

3. Hiriguneen ingurumen-kalitatea hobetzea, eta, horretarako:

- 3.1.- Hiriguneko naturguneak hiri-inguruko eta landa-eremuko naturguneekin lotuko dituzten korridoreak eta eratzun berdeak sortzea.
- 3.2.- Hiriguneko berdeguneen eta ibai-tarteen kalitatea hobetzea.
- 3.3.- Udal plangintzan paisaiaren faktorea txertatzea.

- 3.4.- Berdeguneak eta espazio publikoak diseinatzeko direnean, irizpide bioklimatikoak eta ingurumen-kalitateari lotutakoak txertatzea (konfort termikoa, zarata, kutsadura, etab.).
- 4.- Habitat eta ingurune naturala mantendu eta hobetzea, eta, horretarako:
- 4.1.- Arreta berezia egitea batasunaren intereseko habitatei.
 - 4.2.- Landaredia zaintzea, batez ere ibaiertzeko basoak eta landaredia.
 - 4.3.- Naturgune babestuetatik kanpoko konektagarritasuna babestu eta leheneratzea.
 - 4.4.- Lehentasuneko banaketa-eremuak, babes bereziko eremuak, eta mehatxupean dauden landare eta animalia espezieak dituzten alaketan mendeko guneak zaintzea, kudeaketa-plana izan ala ez.
 - 4.5.- Natura- edo/eta landa-paisaia zaintzea, eta arreta berezia egitea ikus-arro katalogatuei.
 - 4.6.- Naturgune Babestuen sareko eta Natura 2000 Sareko eremuak zaintzea.
- 5.- Airearen kalitatea mantentzea edo/eta hobetzea, eta, horretarako:
- 5.1.- Partikulen kontzentrazioa eta isuriak handitzea ez dakarten proposamenak egitea.
 - 5.2.- 1367/2007 Errege Dekretuak soinu-kalitatearen inguruan finkatutako helburuak betetzea.
 - 5.3.- Artifizialdu gabeko eremuetan argiak izan dezakeen eragina murriztea.
- 6.- Uraren kalitatea eta ur-baliabideen kudeaketa hobetzea, eta, horretarako:
- 6.1.- Ur-baliabideak eta -ingurunea babestea, zaintzea eta leheneratzea.
 - 6.2.- Isurira eta hartuko dituen ingurunera egokitzea ur zikinen tratamendua.
- 7.- Hiri-metabolismoa lehen mailako gaitzat txertatzea hirigintza-plangintzetan.
- 8.- Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna bultzatzea eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- 9.- Baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea, eta, horretarako:
- 9.1.- Diseinu bioklimatikoko irizpideak txertatzea hirigintza-plangintzan.
 - 9.2.- ingurunearen aukeretara egokitzea eraikuntza-kantitatea eta -kokapena (haren matrize biofisikoarekiko).

5. ONDORIOA

Horrenbestez, Arrasateko plan orokorraren agiriak, HAPOak, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioan bildutako ingurumen-alderdiak jasotzen ditu.

Era berean, eta agiri honetako 4. puntuan adierazi den bezala, aintzat hartu dira, halaber, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak prestatutako ingurumen-

inpaktuaren txostenean adierazitako neurriak. Plan nagusiaren garapenak eta ezarpenak bermatu egingo du alderdi horiek guztiak bete egingo direla.

Beste alde batetik, agiriaren tramitazio-aldian ingurumen-alorrari lotuta egin diren alegazio eta gogoeta guztiak aztertu dira. Horiek aztertu ondoren, baten batzuk ontzat hartu eta behin betiko onartzeko testu bateginean txertatu dira. Nolanahi ere, alegazio horiek guztiek jaso dute erantzuna, bakoitzari dagokion ebazpena jakinaraziz.

Arrasaten, 2016ko otsailean

JUAN ANTONIO URDANGARIN
ALUSTIZA

Bide, Ubide eta Portuetako
Injinerua

AMAIA IRIONDO ALBERDI

Arkitektoa